

txinpart⁴⁶


www.hurtzaroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2010eko
MARTXOA




HAURTZARO IKASTOLA



txinpart⁴⁶

www.hurtzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hurtzaro informatzen	3
Hatzak bete lan.....	8
Inauteriak	21
Euskararen txokoa	25
Gurasook jakin dezagun.....	28
Gu ere kazetari.....	31
Nahaste borrate	37

ARGITARATZAILEA

Hurtzaro ikastola

Elorondo, z/g

20159 Oiartzun

© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

BIZIKIDETZA PROIEKTUA


Gogoratuko duzue ikastolako Bizikidetza diagnostikoa egin genuenean, gure bizikidetzako alderdi ahul batzuk identifikatu genituela. Ikasle, irakasle eta gurasoen kasuan jaso zen hobetu beharreko alderdi bat ikastolako araudiaren ezagutza izan zen.

Bestalde, araudi hori aldatu da, ikasleen eskubide eta betebeharrak, alegia. Hezkuntza Sailak argitaratutako agindua ikastolara egokitua dugu eta honen berri jasoa duzue.

Ikasleen eskubide eta betebeharren araudia aurkezteak eta ezagutzeak, diagnostikoan jasotako hobetu beharrekoarekin bat egiten duenez, horretan hasi eta aritu gara pasatu berria dugun hiruhileko honetan: araudia ikastolako estamentu bakoitzari aurkezten.

- Gurasoekin: aurkezpen bilera egin da eta araudi berria ikastolako Web orrian aurki dezakezuela adierazi zaizue. Paper euskarrian nahi izanez gero, ikastolako idazkaritzan eskatu behar duzue.
- Irakasleekin: dokumentua aurkeztua dago eta landu ere egin dugu.
- Ikasleekin: beraien eskubide eta betebeharrak ezagutzeko eta geletan lantzeko materiala prestatu dugu. DBHn hasiak gara eta LHn Aste Santuko oporren bueltan hasiko gara. Lanketa hau tutoretza saioetan egingo dugu.

Jarraian dituzue **ikasleen eskubide eta betebeharren** alderdi esanguratsuenak:





Ibilaldiak eta ekintzak

Haur Hezkuntza 1-2-3

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HH1	MARTXOAN	BASORA	GOZATZERA
HH1	MARTXOAN	BIDEGORRIRA	LAGUNEKIN PASEATZERA
HH3	OTSAILAK 24	ELIZALDE	HERRIA EZAGUTZEN
HH3	OTSAILAK 26	ALTZIBAR	AUZOAK EZAGUTZEN
HH3	MARTXOAK 1	ITURRIOTZ	--
HH3	MARTXOAK 2	UGALDETZO	--

Lehen Hezkuntza 1-2

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH1	Urtarrilak 21	Planetariumera (Pasaia)	Gaia landu
LH1-2	Urtarrilak 26	Donostiara	Zinema euskaraz
LH1	Martxoak 10	Oiasso museora eta Ama Xantalenera	Gaia landu
LH2	Otsailak 17	"La casa del café"ra	Gaia landu
LH2	Otsailak 26	Ingurumen etxera eta tren museora	Gaia landu

Lehen Hezkuntza 3-4

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 4	Urtarrilak 15	Fatimeturi elkarriketa	Arabia gaia landu
LH 3-4	Otsailak 4	Santa Ageda	Ohitura zaharrei eutsi
Ikastola	Otsailak 12	Inauteri festa	Ohitura zaharrei eutsi
LH 3-4	Otsailak 16-17-18	Agenda 21	Motibazio saioa
LH 3	Otsailak 22	Donostiara	Antzerkia ingelesez
LH 4	Otsailak 22 eta 23	Frogak	Ebaluazio diagnostikoa
LH 4	Otsailak 23	Altzibarko erreka	Uraren isla eta harri bilketa
LH 3	Otsailak 26	Donostiara	Zinema euskaraz
LH 4	Martxoak 1	Donostiara	Zinema euskaraz
LH 4	Martxoak 10	Zientzia gunera	Uraren mila aurpegi
LH 3-4	Martxoak 16-18 23-25 eta 26	Euskaraz bizi	Euskaraz jolastu

Lehen Hezkuntza 5-6


MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 5-6	Otsailak 5	Elizalde auzora	Santa Ageda kantatzea
LH 5	Otsailak 16-17 eta 18	Elikadura tailerra	Elikadura eta elikagaiez hausnartzea
LH 5	Otsailak 22	Eskolako Agenda 21	Sortzen ditugun hondakinez hausnartzea
LH 5	Martxoak 5	Erretereriako Niessen KG-ra	Zinema euskaraz ikustea
LH 6	Martxoak 18	Leaburuko Mahalara	Lan Sektoreen gaia jorratzea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH 1. maila	Urtarrilak 14	Erakusketa: udaletxean	Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak
DBH 1-2-3-4	Otsailak 4	Santa Ageda bezpera: herriko hainbat auzotara	Euskal herriko ohitura zaharrei eustea, kopia zaharrak kantatuz
DBH 1-2-3-4	Otsaileko hirugarren astean	Ikastolako Gela Nagusira	Eskola Agenda 21: Hondakinen kudeaketa: motibazio saioa
DBH 2	Urtarrilak 7	Ergoien: Herri musika txokora	Musika instrumentuak ezagutzea
DBH 2-3	Otsailak 11	Jantokiko areto nagusira	Fermin Muguruza musikariarekin elkarriketa
DBH 2-3-4	Martxoaren bigarren astean	Gelan	Garbiñe Merino sexologoaren heziketa afektibo-sexuala
DBH 4	Otsailak 25	Irungo Amaia antzokian LOL filma ikusi	Etikako arloan gaia sakontzea

MENDIAREKIN GOZATUZI!

Haurtzaro Mendi Taldeak mendizaletasuna eta oro har naturaz gozatzea du helburu. Horregatik, ikasturtearen zehar hainbat ekimen antolatzen ditugu. Mendi Taldea izanda, garbi dago mendi irteerak antolatzen ditugula, baina ez gara horretara mugatzen. Eski ikastaroak, irteerak bizikletaz, piragua, ginkana, ur-lasterren jaitsiera. Helburua dugu gaztetxoei naturarekin lokera duten ekintzekin gozaten erakustea.



Arrakasta handia duen ekintza horietako bat eski irteera da. Eguraldiak laguntzen badu, normalean urtarilaren bukaera aldera antolatzen dugu. Garai batean, asteburuko ekintza bat zen, baina azken urteetan egun bateko irteera bihurtu dugu. Larunbatean goizean goiz ateratzen gara Oiartzundik eta pistak irekitzerako Somport-en gaude. Pistak arratsaldeko bostetan ixten direnean, autobusa hartu eta etxera bueltan.

Mendi Taldeak antolatzen duenez, gure eskaintza ipar eskia egitea da, aukera hori baita goian aipatu dugun helburuarekin batez ere bat egiten duena. Bestalde, ikastaro gisa planteatzen dugu, eta, horregatik, gurekin batera Erreterriako Urdaburu Mendi Taldeko monitoreak izaten ditugu. Ikasle guztiak monitoreekin ibiltzen dira. Helduek aukeran izaten dute, bakarrik ibiltzeko gai

baldin badira, bakarrik ibil daitezke eta ez badakite edo eskiatzeko teknika hobetu nahi badute, berentzako ere monitoreak jartzen dizkiegu.

Aurten, guraso eta ikasleen artean, 70 pertsona joan gara. Egun zoragarria pasa genuen. Elurraz eta mendiaz gozatzeko aukera ezin hobea. Gainera, beste irteeretan bezala, honetan ere, etxerako bueltan sorpresa izan genuen: SHERPAk, Erreterriako mendi dendak, eskaintako opariak zozkatu genikuen eta ikasle eta heldu bat baino gehiago egunaz gozatzeaz gain, suda-dera edo niki dotore batekin joan zen etxera.

Haurtzaro Ikastolako Mendi Taldea



Aritzane Toledo eta Ander Aranburu
DBH 3. maila

SANTA AGEDA BEZPERA, Kopla zaharrak kantari

Otsailaren 4an, DBH 3. mailako ikasle-irakasle taldeak Iturriotz aldera jo genuen. Arratsaldeko 18:00etan genuen hitzordua eta hantxe elkartu ginen partaide guztiok, makila bana, zapia eta txapela buruan. Abestu aurretik eta indarrak hartzeko gaileta batzuk, coca-cola eta kas ere izan genituen.

Eskusoinu eta pandero joleak ere bagenituen: Amaia Ostolaiz eta Izar Aizpuru, hurrenez hurren.

Santa Ageda bezperako bertsoen artean kopla batzuk abestu genituen. Koplariak bertso eskolako bertsolariak izan ziren. Irakasleen laguntza ere eskertu genuen: Madalen, Patxi eta Iñaki. Azken irakasle hau izan zen taldeko zuzendari kantatzen genuen bitartean.



Giro ederra sortu genuen. Izan ere, eskusoinu eta panderoaren laguntza genuenez, pozez dantzari aritu ginen.

Iturriotz auzoko Beheko Sorotik abiatu ginen, eta Etxenagusira baino goraxeago iritsi ginen, gorantz

dantzan eta kalejiran, etxe eta baserri batzuetan eskean kantatuz.

Bertan lortutako dirua DBH 4. mailan egingo dugun ikasbidaiaarako gorde dugu.

OIARTZOKO IKASLE OHIEN

Diploma banaketa

Oiertzo
BATXILERGO IKASTOLA

**Goi Mailako Heziketa Zikloetara
edo Unibertsitatara prestatuta
iritsi nahi baduzu...**

Zientzia eta Teknologia Aukera
Osasun Zientziak Aukera
Giza Zientziak Aukera
Gizarte Zientziak Aukera

Oiertzo Batxilergo Ikastola
Zamalbide auzoa z/g 20100 ERRENTERIA
943 52 38 04 - 943 52 03 97 - oiertzo@ikastola.net

Abenduaren 19an Oiertzo batxilerra bukatu berri zuten ikasleekin elkartu ginen Oiertzungo udaletxean.

Lehenik, ikastolaren ongi-etorria jaso zuten Arantza Manterola Oiertzoko lehendakari ordea eta Sorkunde Lekuona Haurtzaroko zuzendariarengandik.

Jarraian, Dani Lasak bere bizitzako ibilbidearen berri eman zigun; Haurtzaro ikastolan hasi, batxilergoa ikasi eta sukaldaritza ikasketetan aritu zen, eta gaur egun Mugaritz jate-txeko sukaldaria da.

Ondoren, gure txanda iritsi zen, DBH 3ko ikasle talde batek musika emanaldi bat eskaini genien instrumentu ugariren eta dantzari baten laguntzaz, Maitere Olangaren zuzendaritzapean.

Ekitaldiaren amaieran, diploma bana jaso zuten Oreretako lehendakaria den Luis Mari Ezeizaren eta Arantza Manterolaren eskutik.

Familia giro atseginean burutu zen ekitaldia. Bestela, ikus ezazu 39. orrialdeko argazkia.



Iratxe Hualde
DBH 3. maila



haur Hezkuntza 1

3 URTEKO NESKA-MUTILOK GORPUTZAREN GAIA LANTZEN ARITU GARA ETA GAUZA ASKO EGIN DITUGU. GURE GORPUTZEKO ATALAK ETA IZENAK EZAGUTU DITUGU, GORPUTZAREN ZAINKETAZ ETA JANARI OSASUNTSUEN GARRANTZIAZ HITZ EGIN DUGU... BUKATZEKO, GURE BURUA MARRAZTU DUGU ETA BEGIRA NOLAKO IRU-DIAK EGITEN IKASTEN ARI GAREN.





Zirku bat datorkigu...

haur Hezkuntza 2

HIRUHILABETEKO HONETAN ZIRKU KOLORETSUA ETORRI DA GURE IKASTOLARA.

4 URTEKO IKASLEAK IZAN DIRA BERTAKO AURKEZLE, DOMATZAILE, ELEFANTE, LEHOI, LEOPARDO, TXIMU ETA PAILAZO.

HIRU URTEKOAK, BERRIZ, AHO ZABALIK EGON DIRA HAIEI BEGIRA ETA, NAHIZ ETA BELDUR PIXKA BAT SENTITU, EDERKI ASKI PASA DUTE.





haur Hezkuntza 3



Gaur goizean, pasiloan zehar ihoteak ikusi ditugu eta izugarri BELDURTU gara. Baina arratsaldean Cesar Zirri-Beltzekin etorri da gure gelara eta erakutsi digu bere moxorroa. Hori ikusi ondoren, nire gelako lagunek galdera mordo egin diote Cesarri. Adibidez, zein den intxixuen agintaria, zatar xamarrek direnez, urik erabiltzen ote duten garbitzeko edo zein den udaletxeko balkoira igotzen dena... galdera guztien erantzunak entzun ondoren lasaiago joan ginen herriko festara. ESKERRIK ASKO CESAR!



Grezia ezagutuz

LH1

Ezagutzen al duzue Grezia? Agian gaur egungoa bai baina guk aintzinako Grezia ezagutu dugu eta a ze erokeriak egiten zituzten:

Emakumeak etxean eta kitto! Ez ikasi, ez erabaki,... ezin zuten ia ezer egin.
Olinpiadak sortu zituzten, baina bertara gizasemeak besterik ezin zuten joan.
Antzerki ederrak egiten zituzten, baina partaideak denak gizonezkoak ziren.
Eraikuntza ikusgarriak egin zituzten jainko eta jainkoak gurtzeko.
Dama jolasa utzi ziguten denbora pasa eder bezala.



Irakurtzen eta ikusten duzuen bezala, gauza asko eta asko ikasi ditugu, beraz,
GORA GREZIA!!!



Bigarren mailakoak, produktu bat bertatik bertara nola ekoizten den ikusteko asmoz, "La casa del café" lantegira joan ginen.



Kafea bildu



Garraiatu



Lantegian kafea xigortu



Poltsetan sartu

Edozein produktu erosi eta kontsumitu ondoren, zer egiten dugu sortzen dugun hondakinekin?

Gehiago ikasteko Azpeitiko "Inguru giro etxea" ikustera joan ginen. Bertan, hondakinen birziklapena eta berrerabilpena aztertzeke aukera izan genuen.



Hau da hau zabor pila! Gure Lurra zaindu beharko dugu! Sortzen ditugun hondakinak bereizi eta dagokien tokian utziko ditugu.



LH3

CHI-KUNG *edo* QUI-GONG

Oraingo honetan 3. mailako ikasleak Txinara joan gara bertako mende askotako jakinduriaraz gozatzera. Beste gauza askoren artean, CHI_KUNG edo QUI-GONG ariketak ikasi ditugu RUBÉN SOROArri esker.

CHI-KUNG, TAI CHI-a baino zaharragoa den teknika txinatarra dugu, ariketa hauen bitartez norbera bere buruarekin ondo sentitzera iristen gara eta horrela gure inguru guztiarekin ere harreman onak izatera (inguruko pertsonak, natura, animaliak...). Gela bakoitzean ariketa bat aurkeztu du.



Mendiak mugitzen dituztenen taldea.



Ilargia eusten dutenen taldea.




Zerua eusten dutenen taldea.

IKASTOLATIK ATERA GABE, *Arabian*

Urtarrilaren 15ean, arabiarren mundua lantzen ari ginela, mailako gurasoa den Fatimeturen bisita jaso genuen. Gauza asko ikasi genituen berarekin: Islama- ren ezaugarriak, beren bizimodua, ohiturak... eta baita tearen errituala nola izaten den ere!

Oso gustura egon ginen berarekin, eta eskerrak emateko gutun bat idatzi genion bakoitzak. Hemen dauka- zue eskutitzetako bat eta argazkiak:





ZURE ELIKADURA *zure bizitza, zaindu ezazu*

Horrelako izenburu luzea du LH 5. mailako ikasleok otsailean egin genuen tailerrak.

Txanelako 4. unitateak (“...eta horrela bizitzen gara...”) gorputza, liseri aparatoa, elikagaiak... eta horrelako gaiak lantzen ditu. Hori aprobetxatuz, “Zure elikadura: Zure bizitza, Zaindu ezazu” tailerrean parte hartu dugu.

Maitane izeneko begirale adituak tailerrean barrena gidatu gintuen: zer den elikatzea, elikagaien funtzioak (energetikoak, eraikitzaileak eta erregulatzaileak), elikagaien piramidea, zenbat razio hartu behar dugun bakoitzetik egunero eta nola egin dezakegun banaketa hori, ariketa fisikoaren garrantzia... argitu genituen. Ondoren, taldeka, begiraleak banatutako elikagaiekin elikagaien piramidearen arabera egun oso bateko menuak osatu behar izan genituen eta gelakideei azaldu.



LH5

Orain badakigu nola zaindu gure elikadura. Egin dezagun bada!




LH6

GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA

Joan den otsailaren 2an LH 6. mailakook oso hitzaldi interesgarria entzun genuen Gipuzkoako Odol Emailen Elkarteko bi kidek emana.

Gauza asko ikasi genituen. Historian zehar zibilizazio batzuetan bihotzari eta odolari buruz izan diren sinesmenak eta aurkikuntza zentifikoak, odolaren osagaiak zeintzuk diren eta bakoitzak zer funtzio betetzen duen, odol taldeak eta abar.

Baina batez ere odolak gure bizitzan duen garrantzia eta odolari esker bizitza asko salba daitezkeela ikasi genuen. Horregatik, oso garrantzitsua da odol emaila izatea.



LH6

EUROPA

Txanelako 2. unitatean EUROPA izan dugu ikasgai. LH 6. mailako bakoitzak estatu bat aztertu du. Interneten eta entziklopedietan informazioa bilatu, gidoi baten arabera ordenatu, zirriborroa egin, zuzendu eta ordenagailuz idatzi dugu.

Informatikako hainbat saio erabili ditugu lan hau egiteko. Estatuetakoa geografia, giza eta ekonomia ezaugarriak aztertu ditugu eta argazkiak txertatuz dokumentu politik egin ditugu. Hemen duzue erakusgarri bat.



ALBANIA

Albania, Balkanetako estatu ez oso handi bat da, eta bere hiriburua Tirana da. Albania 3.582.205 albaniarrez osaturik dago. 28.748 kilometro koadrotan sakabanaturik daude. Lek berria erabiltzen dute txanpon bezala. Albaniarrek albanieraz hitz egiten dute.

Albania Europan, 41° iparrera eta 20° ekialdera dago. Bere mugaideak hauek dira: iparrean Serbia eta Montenegro, ekialdean Mazedonia eta hegoaldean Grezia.

Albaniako erliebea haxe da: oso menditsua, haran estuak eta ibai motzak. Baina kostaldea ere badauka. Klima mediterraneokoa da; hau da, uda lehorrak eta beroak eta negu leunak eta euritsuak.

Tirana Albaniako guneko industrial eta kulturala da. Industria garrantzitsuenak ehungintza, farmakoak eta metalgintza dira.

Albaniara joaten bazara, Pin-dos mendiak eta erdialdeko kostaldea bisita ditzakezu.

Eneko Artola



HERRI MUSIKAREN

Txokora ibilaldia

DBH 2. mailako ikasleok lehenengo hiru hilabetekoan hainbat instrumentu berri sortu genituen Musika arloan, eta horren inguruko txosten labur bat idatzi genuen. Lan hori egiteko bost talde sortu genituen eta talde bakoitzak instrumentuari buruzko informazioa bildu zuen ondoren gelakideei aurkezteko. Aurrerago, Euskal Herriko musika tresnekin hasi ginen lanean eta hainbat bideo ikusi genituen lan idatzia egiteko. Horrekin loturik, Gabonetako oporretatik bueltan, urtarrilaren 7an, 2 taldetan banatu, esne makinaren ondoan dagoen txu-txu trena hartu eta beste behin ere, Ergoiengo Herri Musikaren txokora joan ginen.

Bertan Euskal Herriko nahiz mundu osoko instrumentuak daude familiak ordenatuak eta hauek ikusteko eta bakoitzari buruzko azalpen laburrak jasotzeko aukera izan genuen. Gainera, zenbait instrumentu jo genituen, besteak beste, txirula, txistua, Kanariar Uhartetako nahiz Euskal Herriko panderoa eta Italiako organiloa, eta beren soinu bitxi eta politaz ohartu ginen. Irteera hasi bezala amaitu genuen, trenean. Nahiz eta



DBH2

behin baino gehiagotan egonak garen, gure inguruko instrumentuei buruz jasotako azalpenak oso interesgarriak izan ziren eta instrumentu berriak eza-gutzeko aukera izan genuen. Beti dago ikasteko eta ongi pasatzeko aukera!



Eider Iturrigarri eta Argine Elizondo
DBH 2. maila



Alaia, Maria eta Ibaño
DBH 2. maila

FERMIN MUGURUZA IKASTOLAN

DBH2

Pasa den otsailaren 11n, Fermin Muguruza, abeslari irundarra, ikastolako D.B.H. 2. eta D.B.H. 3. mailako ikasle-ongana etorri zen. Aurretik hainbat informazio biltzeko aukera izan genuen, gure Musikako irakasle eta bere lagun den Xabi Solanok jarritako

film batzuk ikusiz, interneten informazioa bilatuz... Baina askoz ere interesgarriagoa izan zen zuzenean eman zigun ordubeteko hitzaldia.

Lehenik eta behin, bere bizitza kontatu zigun labur-labur. 1963. urtean jaio zen Irunen. Txiki-txikitatik, 6 urterekin, musika ikastaroak jaso zituen eta akordeoia eta gitarra jotzen ere ikasi zuen. Bere etxeko txoko guztietan entzun zitekeen musika, izan ere, bi anaiak, Iñigo Muguruza eta Javier Muguruza, musikariak ditu; nahiz eta hiru anaietatik ezagunena Fermin Muguruza izan.

Fermin Muguruzaren musika ibilbidea 1984. urtean hasi zen Iñigo anaiarekin eta Martin Sorzabalberekin osatutako Kortatu taldean. Fermin abeslaria zen eta gitarra jotzen zuen, Iñigok baxua eta Martinek bateria. Taldeak izugarriko arrakasta izan zuen, batez ere, ska eta dub estiloekin.

Kortatu taldea desagertu zenean, Iñigo eta Kaki Arkarazorekin, Negu gorriak taldea sortu zuen. Talde arrakastatsu horretako abeslaria zen Fermin. Orduan ekin zion bakar-

kako lanari. Hainbat estilo landu zituen, horien artean, rock, hip hop, funk, soul, durm and bass, reggae eta erritmo latinoak.

Abeslari honek pertsona nahiz talde ospetsuekin lan egiteko aukera ere izan du: Manu Chao, Banda Bassotti, Amparanoia, Tijuana no!, Zebda eta Desorden Público, besteak beste. Hau guztia azaldu ondoren, galderak egin genizkion Fermini eta guztiak erantzuteko prest agertu zen. Gainera, galderak erantzuten zituen bitartean, Euskal Herriko historiaren datu ugari ematen zituen eta haren ezagutzak harritu gintuen. Azpimarratzekoa da gaztetan euskaraz ikasteko egin zuen ahalegina eta Euskal Herriaren alde egindako lan izugarria, eta argi utzi zigun horrela jarraitu behar dugula: euskaraz biziz eta Euskal Herriaren alde borrokatuz.

Fermin Muguruzaren bisita motza bezain interesgarria iruditu zaigu, eta nola ez, errepikatzeko modukoa! Esan beharra dago Eskutuni esker etorri zela gure artera; eta benetan eskertzen diegu bai Fermini eta bai Eskutuneko kideei, eskaini ziguten aukera.



Gu ere zientzialari!

Zientzialarien modura ibili gara gu ere. Zenbait gertakari nola gertatzen diren ikustearekin ez dugu aski izan eta zergatik gertatu diren antzemateko metodo zientifikoa jarraitu dugu. Etxeko esperimenduak interpretatu nahian ibili gara.

Presio atmosferikoarekin jolasean ibili gara! Etxean egin daitezkeen esperimendu sinple eta dibertigarriak dira. Proba ezazue!



Edalontziaren experimentua:

Edalontzian oxigenoa kontsumitu eta barruko presioa gutxitzen dugunez, ur maila igozten da kanpoko presioaren eraginagatik. Talde ezberdinetan jarri eta esperimendu sinpleak egin ditugu presio atmosferikoaren eragina aztertzeko.

Erabilitako materialak:

Ontzi handia, ur koloreztatua eta edalontzia. Edalontzian hutsa sortu dugu eta ur maila nola igo den ikusi dugu. Hau guztia presio atmosferikoaren eraginagatik da.



Globo eta botilaren experimentua:

Esperimentua honetan datza: globo bat botila baten barnean puztea. Botilaren beheko aldean zulo bat egin behar da. Ondoren globoa botilaren ahotik behe-
ra zintzilik jarri eta puztu ondoren zuloa tapatu behar da. Hemen presioak goitik eta behetik gora berdin egi-
ten duenez, globoa botilaren barnean puzturik gera-
tzen da.




Lataren experimentua:

Lataren barruan ur lurruna daukagu. Espazio osoa oku-
patzen duenez, kanpoko aireak ez dauka sartzetik.
Ur hotzetan sartzen dugunean ur-lurruna bat-batean
kondentsatzen da, eta, ur azpian dagoenez, kanpoko
airea ezin da barrura sartu nibelatzerara. Beraz, kanpo-
ko presioa handiagoa denez, lata uzkuritu egingo da.



Botila eta arrautza egosiaren experimentua:

Lehenengo botila barruko airea kontsumitzen dugu
pospoloa erabiliz eta barruan presio gutxitze bat lor-
tzen dugu. Kanpoko presioa handiagoa denez, arrau-
tza barrura bultzatzen du.



Lierni Etxebeste
Alaitz Aguilar
Jara Garcia
Izar Aizpuru

Jaione Alkain
Ander Aranburu
Julen Azkue
Aia de la Peña

Haizea Gonzalez
Aintzane Toledo
DBH 3. maila



KUESTAZIYUA

Garai batean larunbat inauterian Oiartzunen auzoz auzo dantzan ateratzen ziren hainbat talde. Baserriz baserri joaten ziren eskean, eta lortutakoarekin bazkaria egiten zuten.

Orain, lyote berreskuratze taldea frankismoan kendutako ohitura bultzatzen ari da. Horregatik, aurten ere Inauterietako larunbat goizean makina bat talde elkartu eta auzo bakoitzera talde horietako bana joan ginen.

Gure taldea Iturriotz auzora joan zen, bertako baserri eta etxeak bisitatuz eta ate aurrean dantzatzuz trikitixa eta panderoaren laguntzaz. Gu bezala, beste auzoetan ere berdin egin zuten. Horren ondoren, auzo bakoitzean bazkari bat egin genuen. Gure kasuan Iturriozko elkartean, Iturri-berrin, egin genuen.

Arratsaldean, berriz, auzo guztietako taldeak elkartu eta kalejiran plaza aldera joan ginen, bertan arin-arina eta fandangoa dantzatzera. A zer gozatua hartu genuena!

***Irune Arbide, Irati Carbonero, Ane Lizarraga
eta Mireia Retegi***



DBH4

Zumaira ibilaldia: Flysh-ak aztertzen

Ibilaldira joan aurretik, astelehen hartan edukiko genuen eguraldi txarraren jakitun ginen jada. Hala ere, Zumaian pairatu behar izan genuen egoera askoz gogorragoa izan zen eta ondorioz ezusteko ugari eduki genituen: ibilaldian zehar lohira erortzea, mugikor eta kamerak gu bezain blai eginda...

Baina, orokorrean balorazio positiboa atera dugu, ibilaldi interesgarria, aberatsa eta oso dibertigarria iruditu baitzaigu!

Algorriko interpretazio zentrua

Biologia-Geologia arloko taldeak Zumaia egin genuen ibilaldian, Algorriko interpretazio zentroa bisitatu genuen. Eraikuntza bitxia da, egitura originala du eta lehenago herriko hiltokia izana da.

Laiene izeneko emakumea eduki genuen gida moduan. Oso azalpen interesgarriak eman ondoren, ibilalдитxat bat egitera eraman gintuen flysh-ak ikustera. Eguraldia-

Hau da gozamina egin genuena! Barruak goxo genituen behintzat!


Hamaiketakoak 20-25 minutu inguru iraun zuen eta ondoren zentroaren aurreko atean bildu ginen berriz.

Zumaiako flysh-ak aztertzen

Menderik mende sortzen joan den Marearteko zabalgu-nea da; itsaslabarretan, itsas mailan, agertzen den kostaldeko plataforma harritsua. Itsasoak itsaslabarrak higatzean sortzen da, bi baldintza hauek betez gero: itsasgora eta itsasbeheraren artean alde handia egotea, eta arroak geruzez osaturik egotea.

Flysh hitza, alemanieratik dator, eta irristatsu esan nahi du, "IRRISTA-LEKUA". Bi material uniformeki osatuta dago, material gogorra (harearria) eta material biguna (tuparria). Tuparriak fosilizatutako itsas mikroorganismo ugari izaten ditu.

Gipuzkoako mendebaldeko kostaldeko itsaslabar ikus-



ren ondorioz, ibilaldia ez zen guk pentsatu bezalakoa izan, eta guztiz blai eginda geundenean, Laienek Algorriko interpretazio zentroran eraman gintuen, hango liburutegian berogailu pare bat ipini eta autobusa etorri bitartean, bertan egoteko aukera eskaini zigun.

Hamaiketako oparoen egiteko aukera

Eguraldia oso txarra izan zen. Euri zaparrada handia izan genuen egun osoan zehar. Hamaiketakoaren ordua iritsi zenean, batzuk barruan geratu ginen; beste batzuek, berriz, kanpora ateratzera erabaki zuten.

Kanpora ateratzea aukeratu zutenak, interpretazio zentroaren inguruko kafetegietara joan ziren, kafesne goxoa hartzera.

garriek altxor berezi bat dute gordean. Itsasoaren eragin etengabearen ondorioz, harkaitz-geruza horiek agerian geratu dira, eta formazio berezi horri flysh esaten zaio. Hain zuzen, kostalde osoko elementu bereizgarriena da, Biotopo Babestua izendatua.

Flyscharen geruza-sekuentziak ia-ia 60 milioi urteko (duela 110 milioi urtetik duela 50 milioi urte inguru arteko) segida jarraitua osatzen du, eta hor Lurraren historiaren gertaera eta kataklismo garrantzitsuen arrastoa ikus daiteke. Horregatik, kostalde horretan zehar ibiltzeak denboran bidaia zoragarria egiteko aukera ematen du.

Biologia-Geologiako DBH 4. mailako taldea

Inauteriak 2010



Restaketa...



Goizez

DBH



Haurtzaro ikastola - 2010eko martxoa



Goizez HH



Goizez



LH1z

LH2z



LH3z



Arratsaldez

Partuzuegoa

▼ 2 urtekoen emanaldia



Gurasoak ▼

4 urtekoak Pirritx eta Porrotzekin



DBH 4 agurra ▼


Teknikoak ▼



HHkoen emanaldia ▼

James Bond ▼

Ikastolako dantzariak ▼





JOLASTU EUSKARAZ, *Euskararekin jolastu*

Ikastolan, bai gelan, bai gelatik kanpo: EUSKARAZ BIZI! Hori izan da gure helburua martxoaren 15ean hasi eta 26an kirol-jaialdi batekin amaitu genuen bigarren kanpainan.

Jolas edota kirolekin egiten den euskara hobetzeko, jolas-garaietan herri kirolak antolatu ditugu: soka-tira, txikorta, toka, zaku-lasterketak, pilota-partiduak... Ikasleak animatuz batzuetan, lehiatuz bestetan; baina beti ere kanpaina honetako lehen jarraituz, gustura aritu dira.

Haurtzaroko ikasleen artean euskara sendo eta bizirik dagoela erakutsi dute ikasleek jolas-garaietan zehar, eta baita Brankako diagnostikoan lortutako emaitzek ere. Nolanahi ere, beti dago zer landua eta horretan jarraituko dugu, euskaraz bizitzeko helburuarekin.





ESKUTTUN


Hiruhilabetero egin ohi dugun bezala, gure Txinparteko txokoa aprobetxatu nahi dugu antolatutako ekintzen berri emateko eta egindako lan guztiaren emaitza ikusarazteko.

Aurreko hiruhilabeteko kanpainarekin bukatzeko, antipiro po lehiaketa antolatu genuen eta arrakasta handia izan zuen. Irabazlea DBH 1. mailako Beñat Oiarbide ikaslea izan zen. Honako antipiro poa sortu zuen: *Zure kopetako granoekin Esne-bideko konstelazio guztiak ikasi nituen.*

Otsailaren 11n Fermin Muguruza izan genuen Haurtzaro ikastolan DBH 2. eta 3. mailako ikasleekin solasean. Hasiera batean, bere bizitzako gertaerak kontatu zizkigun: musikari moduan izandako gertakari bitxiak, berriemaile lanetan bizitako gorabeherak... Gero, ikasleok genituen galderak argitu zizkigun barre eta algara ugariaren artean; eta bukatzeko, bideo-klip bat jarri zigun Afganistango lurraldearekin goza genezan.

Martxoaren 16tik 26ra Euskaraz Bizik antolatutako 2. kanpainan buru-belarri lanean aritu ginen, eta iaz izandako arrakasta ikusita, futbol- eta pilota-txapelketak antolatu genituen euskaraz animatzeko helburuarekin. Txapelketa hauetan parte hartzeko gela bakoitzean izen-emate orriak jarri genituen.

Astelehen eta asteazkenetako jolas-garaietan pilota partidak jokatu genituen; astearte eta ostegunetako



jolas-garaietan, berriz, futbol partidak. Gainera finalera iritsi zen futbol taldeak irakasleen aurka partidu ikusgarria jokatu zuen.

Eskuttun taldeko partaideok partiduetan epaile lanetan aritu ginen, baita parte hartzen, ikaskideak animatzen, eta irabazleei merezitako saria ematen ere.

Ikus daitekeenez, hatzak bete lan izan dugu ebaluazio honetan, baina indarrak ez zaizkigu agortu eta horrelaxe jarraituko dugu hurrengo ebaluazioko kanpainan prestatzen.





KONTUTU GABE, BIDE ERDIYA TA GEHIO

Urtia, ta hiruhilabete berriya, dotore-dotore hasi genun Kuadrillategikuk elegante afariyan. Dotore ta kontentu, bakoitzak be opari ezkutua jasota. Biño, hasi ta bukatu, bigarren hiruhilabetia kontutu gabe pasa da, lehenenguan martxan. Tartin, bestiak beste, inauteriyak ospatu genittun; etzen mozorroik falta izan! Ihotitako zaku-mozorruk re in genittun, mahai-jolasak, pelikulak ikusi... Biño, ekin tzak ekintza, bateze kuadrillategikidin arteko harremanak izan dia forma hartzen jun dinak. Berdin du ezer prepatuik ez bado; kontua Kuadrillategira jun ta batekin ta bestikin eotia da: hizketan ro jolasin, ostiral illunabarrak elkarrekin gustoa pasatzia. Kuadrillategi hasi zen be bidia itten, ta karrerilla hartuta bezela, in dugu erdiya ta gehio. Hemendik aurreagokun berri emango hurrengun!

Kuadrillategi


Kaixo!

Lehenik eta behin gazte-forutik eskerrak eman nahi dizkizuegu Gabonetan jostailu bilketan parte hartu zenuten guztiei, bai jostailuak emanaz baita erosiaz ere. Guztira 197€ lortu genituen Etiopiako Bushulo herrirako. MILA ESKER!!

Orain guk egindako boligrafoak eta txapak saltzen ari gara eta oraingo honetan dirua Peruko Huambrillo aterpetxera bidaliko dugu. Honen inguruan erakusketa bat ere antolatu dugu Oiarzungo Udal Liburutegian. Egun hauetan munduko herrialde desberdinetan bizi diren gazteen errealitate ezberdinak ikusi ditugu eta gu zeinen ondo bizi garen ohartu gara: batzuek ez dute urik, beste batzuek ez dute janiririk, beste batzuek hiru orduko bidaia egin behar dute oinez eskolara iristeko eta badira milaka istorio gehiago.

Honek lanean jarraitzeko indarra ematen digu, eta halaxe egingo dugu. Jakin gazte guztiak gonbidatuak zaudetela gurekin egotera.

Gazte Foro





Elikagai ekologikoak

OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOAN

ekolapiko

2010eko urtarrilaren
7tik hona martxan

dago elikadura ekologi-
koaren proiektua Oiartzungo Udal Ikasto-
la partzuergoan.

Baina zer da elikagai ekologikoa?

Barazkien kasuan, sintesiko substantzia kimikorik erabiltzen ez duen eta animalien kasuan, hormona eta antibiotikorik erabiltzen ez duen nekazaritza eredutik eratorritako elikagaia, ingurumena errespetatzen duena lurraren emankortasuna zainduz eta animalien ongizatea ziurtatuz. Elikagai osasungarri eta bizigarriak dira beraz, zapore handikoak eta naturaren lege eta erritmoak errespetatuz ekoiztuak izan direnak. (Ekolapiko proiektua. Biolur-Behemendi)

CEE 834/2007 Europar araudiak erregulatzen ditu elikagai ekologikoak. Euskal Herrian, ENEEK (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua) da zigilu ekologikoaren bermea ematen duena, ikuskapen eta kontrol zorrotzak jarraituz.

Denok dakigu zein garrantzitsua den ongi elikatzea gure osasunerako, eta zer esanik ez haur txikien kasuan. Lehendabiziko urteetan gizakiaren garapena izugarria da, eta elikatzeak ohituretako lehen urratsak ere egiten dira. Gure elikaduran ahalik eta toxiko gehienak saihestuz osasunaren alde egiten dugu.

Joan den ikasturtean Behemendi (Mendi eta Nekazarien elkarte) eta Biolurrek (Gipuzkoako nekazari ekologikoen elkarte) proposamen bat egin ziguten: gure sukaldaria bagenuenez, inguruan ekoiztutako produktu ekologikoak erabiltzea.

2008/2009 ikasturtean zehar, batzordeetan landu zen gai hau eta 2009ko ekainean eta uztaillean proba egitea erabaki genuen.

Lehendabiziko urratsa izan zen ekologikoak ez ziren barazki, fruitu, lekale eta lekariak ordezkatu eta ekologikoak gure menuan txertatzea. Elikagai ekologiko hauek kontsumitzeak dakarren gailentzea zein den zehazki jakiteko ere baliagarria izan zen.

2009/10 ikasturte hasieran prozesuarekin jarraitu genuen. Probaren balorazioa ona izan zen (sukaldari, irakasle, haur eta gurasoen iritzia kontuan hartu ziren) eta ondoren guraso guztien iritzia idatziz jaso zen.



Horretarako galdeketa bat erabili zen:

- Lehendabiziko galdera janari ekologikoari ematen zitzaion garrantziari buruzkoa zen.
- Bigarrenean, haur bakoitzaren janariaren gailentzea 6 eurokoa izango zela jakinik, honen balorazioa eskatu zen.

Galdeketa emaitzek argi utzi zuten guraso gehienak proiektuaren alde zeudela; 4-tik 3k baino gehiagok baieztatu zuten proiektuari.

Ondorioz, Zuzendaritza Batzordeak (Oiartzungo Udal eta Haurtzaro ikastola) elikagai ekologikoak partzuergoan menuan txertatzen hasteko erabakia hartu zuen.

Lehenengo urratsa eman dugu... Badakigu gure inguruan ildo honetan doazen apustuak egiten ari direla; esate baterako, Donostiako Antiguoa, Prim eta Zuloaga Udal Haur Eskolek 2008ko apirilaz geroztik Ekolapiko (Elikadura Ekologiko eta Orekatua) proiektua martxan dute.

Datorren ekaina aldera gurasoei zuzendutako bi ekintza aurreikusten ditugu: "Elikadura Ekologiko eta Orekatuari" buruzko hitzaldia alde batetik eta ekoizpen ekologikoa duen baserri batera bisita bestetik.

Hau guztia gure haurren onurarako izango delakoan gaude.

Partzuergo Zuzendaritza Taldea



ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO

Guraso Taldea

Zergatik piztu da talde hau sortzeko beharra?

Talde hau sortu da zenbait hutsune ikusten genituelako eskolaz kanpoko ekintzetako funtzionamendu eta dinamikan. Esate baterako, eskola-kirolaren ekintzetan, bai prestaketan eta bai haurrek egiten dituzten kirolean, ez zuten behar bezala barneratzen arauak nola ikasi eta nola erabili.

Zenbatek hartzen duzue parte talde horretan?

Taldea zortzi gurasok osatzen dugu. Hilean behin elkartzen gara koordinatzailearekin, zer berri dauden jakiteko, arazoren bat baldin badago bideratzeko... Ikastolako Zuzendaritza Taldea partaide bat ere gurekin elkartzen dela.

Zer asmo dituzue?

Gure asmoa da eskolaz kanpoko ekintzetako arlo guztiei jarraipena egitea. Ongi bideratuak dauden ziurtatu eta gurasoei, begiraleekin eta ikasleekin arazoak baleude, konpontzen saiatu.

Zer egin duzue orain arte?

Gure asmoa eskolaz kanpoko ekintza guztiak gainbegiratzea da. Arazo gehienak haur asko mugitzen dituen eskolaz kanpoko ekintzetan sortzen direnez, hortik hastea komenigarria ikusi dugu. Lehenengoa eskola kirola izan da, eta jarraipenarekin hasi ginenetik iruditzen zaigu bide onetik doala. Bigarrena euskal dantza izan da eta horretan jarraitzen dugu.

Bestalde, ikasle eta gurasoei zuzenduta hitzaldi bat antolatu genuen. Mikel Odriozola, Mikel Astarloza eta Xabier Jauregi kirolariak eta Akaba Bera Bera eskubaloitzaileak Kattalin eta Libe bertaratu ziren eta gai askoren gaineko elkarriketa interesgarria sortu zen.

Bukatzeke, esan nahi dugu guraso taldea osatzen dugunon aldetik prest gaudela edozein kezka, iradokizun edo asmo jasotzeko, eta denen artean lantzeko. Zuen mezuak helbide elektroniko honetan: estraeskolarrak@haurtzaroikastola.net edo/eta ikastolako sarreran dagoen buzoian utz ditzakezue.



Zutik ezkerretik hasita:
Iosune Iñarra eta Amaia Ibarguren.
Eserita: Jaione eta Amaia Sanzberro



Zer da

HAURTZARO IKASTOLAN BAZKIDE IZATEA?

Plan estrategikoa dela eta, bazkideza eta bazkide hitzak hizpide ditugu. Plan estrategikoa lan-tzerakoan, Haurtzaro ikastola guraso eta langileez osatutako kooperatiba bat izanik, ohartu gara horiek kooperatibako partaide direla badakitela, baina bazkide direla kasu gehienetan ez direla jabetzen. Egoera horren aurrean, ezjakintasun hori argitzea lehentasun bat zela erabaki genuen.

Haurtzaro ikastola eta, oro har, ikastolak sortu zituzten guraso eta langileek ez zuten arazo hori. Beraiek oso garbi zuten ikastoletako bazkide zirela. Beraiek sortutako proiektua zen, beraiek hartu zituzten erabakiak, beraiek aurkitu behar zituzten diru iturriak, ikastolako funtzionamendu-ko lan asko beraiek egin behar zituzten askotan: gelak garbitu, obrak egin, material pedagogikoa sortu... Oraingo guraso eta langileek ikastola egina aurkitu dute. Nahikoak ez izan arren, gaur eguneko diru laguntzak garai batekoak baino askoz handiagoak dira. Hitz gutxitan, lehen bizirau-pena zegoen jokoan eta orain kalitatea edo eskaintza mota. Aldea handia da.

Egoera hau ikastolen egonkortasunaren isla da eta horregatik poztu besterik ezin dugu egin. Baina bidean, garai bateko inplikazioa galdu dugu, eta inplikaziorik gabe ez dago ikastola proiekturik. Guraso eta langileak Haurtzaro ikastolako bazkideak gara, ikastolan gure seme-alabak eskolatzeko eta ikastolan lanean aritzeko ezinbesteko baldintza baita, baina zuetako askori galdetuz gero, askok ez dakizue bazkideak zaretenik eta dakizuenek ez dakizue bazkide izateak orain arte egin duzuen baino gehiago egitea suposatzen duen ala ez.

Zer da beraz bazkide izatea? Erakundeko partaide izatea besterik ez da. Auzo elkarteko bazkideak gara askotan eta horretan oso garbi ikusten dugu gure bazkideza papera. Beraz, ikastolan zergatik ez da hain garbi ikusten? Arrazoia oso sinplea eta oso logikoa da: bazkideak gara, baina gure seme-alaben guraso ere bagara; eta, bazkideak gara, baina langileak ere bagara. Gurasoen aldetik, hezkuntza proiektu baten jabeak gara eta era berean, hezkuntza proiektu horren bezeroak gara. Langileak, bazkideak diren neurrian nagusiak, patronala dira eta era berean, langileak. Errealitate horretan erraza da paperak nahastea.

Eginkizun horiek definitzea da gure buruari jarri diogun erronka. Bai guraso eta bai langileek gaur egun ikastolan egiten ditugun lanak oso garbi identifikatu daitezke bezero eta langileen eginbeharrekin, aldiz, beste lan batzuk bazkideen eginbeharrekin. Beste batzuk ez dira hain garbi egongo eta horietaz bereziki hitz egin beharko dugu eta denon artean adostu. Baina garbi dago, ikastola proiektua zerbait baldin bada, gure buruaren jabe garelako dela. Gu ez gaude administrazioaren menpe, gure jabea ez da kongregazio erlijioso bat. Guk gure proiektua garatzeko ahalmena dugu, baina ahalmen hori dugu, erakunde autonomia garelako. Horregatik, erakunde horretako bazkideak proiektuaren partaide bihurtu behar ditugu.

Gure seme-alaben irakaskuntzatik eta gure lanetik haratago jarri behar dugu begirada. Guraso eta langileek ikastolako partaide garen bitartean, gure beharrei bakarrik erantzun beharrean, etorkizunean proiektu honek aurrera egin dezan ahalegindu behar dugu. Bakoitzak ahal duen neurrian, baina denek bide berean. Hori da finean, Haurtzaro ikastolako bazkidea izan eta sentitzea.

Ikastola zaleak, ikastolaren alde lana egiteko sentipena Haurtzaro ikastolako partaide gehienek dute. Bazkidea izatea ere bada hori. Ikastola zaleei, bazkideei, dagokie Haurtzaro ikastola bizirik mantentzea. Ideia hau zabaltzea da Plan Estrategikoaren helburua. Ideia zabaltzearekin bazkideen inplikazioa handituko da, eta proiektuaren etorkizuna bermatu egingo dugu.



Eskolako Agenda 21: hondakinen kudeaketa

Martxa betean dago Eskolako Agenda 21 gure ikastolan, eta lehenengo saioak egin ditugu, erakusketa gidatuak Oneka Zapirainen esku-tik. Ongi ikusi genuen bezala, gaur egun ditugun kontsumo ohiturek hondakin asko sortzera bultzatzen gaituzte eta gizarte eta ingurumen arazo larria bihurtzen dela argi dago. Irtenbidea ez da erraza, baina Oiartzunen atez ateko bilketaren apustua egitera goaz. Birziklapen maila igotzen badugu, zaborte-gira doan hondakin kopurua gutxitu ahal izango dugu.

Dirudienez, zintzilikarioentzako zutabeak jartzen ari dira eta ontzi marroiak banatuko dizkigute. Aste Santua pasa ostean bilketa sistema berriari heldu beharko diogu.



hondakinen kudeaketa





Ingurumena zainduz

LIFE Proiektu berria: Oiartzungo pago-motzak zainduz

2004 tik Aiako Harriko Parke Naturala Natura 2000 sarean dago txertatuta, hau da, Europako bioaniztasuna zaintzeko naturgune babestuen sare erraldoian. Parke Naturalean Hernani, Donostia, Errenteria, Irun eta Oiartzunek dituzte lurrak. Gure herria Parke Naturalaren %50aren jabea da. Naturaren zaintza eta erabilera publikoa dira besteen aurrean gailendu behar diren helburuak. Erreserba-eremu bat ere badugu Oiartzunen, sai errearen habia eta ugalketarako sortua: Txurrumu-rru-Txikia.

Txondorrek eta ikatza egiteko erabiliak, pago-motzak biodibertsitaterako oso garrantzitsuak dira, baita ondare kultural gisa, garai bateko jardueren lekuko eta ondorio baitira. Desagertzeko bidean dagoen hainbat animalia pago-motz hauen menpe bizi da. Euskal Herrian —zehatz esanda, Oiartzunen— dugu munduko zuhaitz-motzen kopuru handiena. Gure planetan pago-motzez osatutako basorik handiena Oieleku da.

Europako Batzordeak onartu duen LIFE proiektu berri honek zuhaitz-motzak babesteko tresna izan nahi du, bereziki esku pribatuetan dauden batzuk erosi eta herriarenak bihurtzeko berriro. Beste helburu nagusia dauden zuhaitz-motzak motz bezala mantentzeko esperimentziak egitea izango da.

2009ko konpostajea Haurtzaroko jantokian: hondakinen ekoizpena gutxitzen

Oiartzunen aurtengo udaberrian emango diogu ongi-etorria hondakinen bilketa-sistema berriari: gaikako atez ateko bilketa. Bestalde, 2008ko urriaren 8an abiatu zen konposta-makina Haurtzaron. Bertan jantokian sortutako janari-hondakinak birziklatu egiten ditugu eta KONPOSTA sortu. Badakigu 2009. urtean zenbat hondakin



organiko sortu dugun ikastolan: 13,5 tona (zabortegietera joan ez direnak). 2009an 3.000 kg konposta ekoiztu zen.

Herriko lorategi eta lorontzietan erabili du Udalak konposta landare eta zuhaitzen ongari gisa, osasun eta hazkuntzaren onerako. Bestalde, leku askotatik bisita egin digute Haurtzaroko konpostajea ezagutzeko: Bretainia, Katalunia, Burgos, Goizueta, Zarautz, Irun, Pasaia, Antzuola, Eskoriatza...

Gipuzkoako Talde Ekologistek Aiako Harriko Parke Naturalaren eremua handitzeko eskatu dute

Otsailaren erdialdean udal eta foru erakundeetan eskaera hau egin dute Ekologistak Martxan, Eguzki eta Haritzalde taldeek. Proposamen honen oinarrian dago orain arteko mugak batez ere eremu publikoei zegozkiela eta balio handiko habitatak kanpoan gelditu zirela 1995ean, Parke Naturala izendatu zen urtean.

Bidasoalde, Oiartzualde eta Donostialdearen eremuan hedatzen ari den artifizializazio erritmo itzelaren aurrean



erantzun publiko gisa ere aurkeztu dute zabalkuntza hau. Horrenbestez, berri onak lurraldearen kudeaketarako eta bereziki naturaren zaintzarako.

2010eko Zuhaitz Eguna Karrikan

Otsailaren 21ean ospatu zen aurtengo zuhaitzaren jaia, Karrika auzoan. 90 lagun inguru etorri ziren. Artaso elkartetik Añuetara oinez joan ginen (2 kilometro inguru); ateri, baina eguraldi haizetsua egin zuen. Landaketaren ondoren hamaiketako egin genuen bertan.

2009ko eguzki-energiaren uzta 3.305 Kwh izan da Haurtzaron

Duela zenbait urtetatik hona energia berriztagarrien ekoizpen-bidean hasi ginen Haurtzaron. 2009. urtean 3.305 Kwh eta 1.454 € eman zizkigun eguzkiak, lurrari petrolioaren kendu gabe eta negutegi efektuko gasen sorrera murriztuz. Bestalde, ez da ahaztu behar gure berezko ekoizpena hori izanik ere, lehengo urtean 151.093 Kwh

kontsumitu eta 20.000 € inguru gastatu genituela gure gelak argizatzen eta elektronika-tresnak erabiliz (fotokopiagailuak, aspiradoreak, ordenagailuak...).

Berriztagarriak zabaltzetik eta aurrezpen eta efizientzia energetikotik etorriko da energia urritasunaren arazoa konpontzea.

Mugikortasun iraunkorra: Udalak bidegorria eraikiko du kiroldegiaren eta eskolagunearen artean

Udalak 2010erako aurrekontua onartu berri du. Bertan, kiroldegitik Elizalde eta Haurtzaro aldera etorriko den bidegorriaren proiektua jasota dago. Bi urtetan Eskola-Agenda 21ean landu dugun mugikortasun iraunkorrean sakontzeko aukera izango dugu.

Ekimen honen eskaera Elizalde, Haurtzaro eta Oiarzualdeko Kalapie Hiri-txirindularien Elkartearen elkarlanetik etorri da. Oiarzungo mugikortasunak sortutako arazoaren konponketa oinezko eta txirringaren bultzadatik eta doako garraio publikoa ezartzetik etorriko da.





Amaia eta Aitane
DBH 4. maila

DBH 4. MAILAKO IKASLEAK

Hamaiketako goxoak prestatzen

Urtarriletik hona atseden garaietan hamaiketako salmentaren zerbitzuarekin hasi ginen DBH 4-ko ikasleok. Astero DBH4-ko lau neska-mutileko taldean banaturik eta irakasleen laguntzarekin sandwich-ak, ogitartekoak, irabiakiak... saltzen ditugu, ikasturte bukaerako ikas-bidaiarako dirua lortzeko. Abagune hau DBH guztiko ikasleok balia dezakegu hamaiketako erosteko.

Eskaintzen dugun zerbitzua ebaluatzeko, DBHko ikasleengana hurbildu eta galdeketa bat egitea erabaki dugu. Horrela egiaztatuko dugu zerbitzuarekin gustura dauden ala ez.

ANTOLAMENDUA

Hau guztia bideratzeko ostiralero DBH 4. mailako 4 ikasleko taldea supermerkatuara joaten da hurrengo asteko erosketak egitera; urdaiazpikoa, txorizoa, ogia, gazta... erostera, eta egun horretan bertan ikastolara eraman eta hango hozkailuan gordetzen dira ez hondatzeko. Astelehenean hasita, egunero, jantokiko areto nagusiko bi mahai hartu eta hantxe jartzen dugu gure saltokia, gazta, urdaiazpikoa, sandwicherak... eramanda. Dena prestatzen den bitartean ikasle bat, ondoko okindegira joaten da eguneko ogia erostera, ogitartekoak prestatzeko. Eta horrela, egunero-egunero hamaiketako goxoak prestatzen ditugu.

Galdeketa

DBH.1: Amets Sarra eta Julen del Río



1. Zerbitzuarekin gustura al zaudete? Zergatik?

Bai, gustura gaude zerbitzuarekin. Azkar kasu egiten digutelako.

2. Prezioak zer iruditzen zaizkizue? Egokiak al dira? Zergatik?

Prezioak ondo daude, gure ustez, egokiak dira, merkeak.

3. Egunero etortzen al zarete hamaiketako erostera?

Bai, egunero etortzen gara erostera.

4. Zuen ustez, zertan hobetu daiteke zerbitzu hau?

Gure ustez, ezertan ere ez.



DBH.2: Eluska Leibar eta Aizea Paulin



1. **Zerbitzuarekin gustura al zaudete? Zergatik?**
Bai, hamaiketakoa ekartzen ez dugunean hemen erosten dugulako.
2. **Prezioak zer iruditzen zaizkizue? Egokiak al dira? Zergatik?** Prezioak ondo daude, merkeak dira.
3. **Egunero etortzen al zarete hamaiketakoa eroatera?** Gu, astean behin edo horrela etortzen gara eroatera.
4. **Zuen ustez, zertan hobetu daiteke zerbitzu hau?** Gure ustez, ezertan ere ez.

DBH.3: Jaione Alkain eta Jasone Gomez



1. **Zerbitzuarekin gustura al zaudete? Zergatik?**
Bai, ogitartekoak onak direlako.
2. **Prezioak zer iruditzen zaizkizue? Egokiak al dira? Zergatik?**
Prezioak ondo daude.
3. **Egunero etortzen al zarete hamaiketakoa eroatera?**
Bai, egunero etortzen gara eroatera.
4. **Zuen ustez, zertan hobetu daiteke zerbitzu hau?** Gure ustez, ezertan ere ez.

DBH.2: Itxaso Aldai, Alaia Belaunzaran, Ilargi Aristondo eta Maria Lizarraga



1. **Zerbitzuarekin gustura al zaudete? Zergatik?**
Bai, hamaiketakoa ahazten zaigunean, bertan eros dezakegulako.
2. **Prezioak zer iruditzen zaizkizue? Egokiak al dira? Zergatik?**
Merkeagoak izango balira, hobeto.
3. **Egunero etortzen al zarete hamaiketakoa eroatera?**
Ez, astean bitan.
4. **Zuen ustez, zertan hobetu daiteke zerbitzu hau?** Gure ustez, ezertan ere ez.

Galdeketa honi esker zerbitzuta zertan hobe dezakegun jakin dugu. Beraz, hemendik aurrera, zerbitzua hobetzen saiatuko gara, eta egunero-egunero hamaiketako goxoak prestatzen.



Mikel Anbaru
DBH 3. maila

KONTXA MURGUIA EGAÑA (1806-1854)

Ba al zenekien?

1. 1806ko otsailaren 29an jaio zen Manuel Lekuona liburutegia den etxean, Maria Concepcion Juliana Sebastianana izenez bataiatua.
2. Domingo Maria Murgia Azkonobieta organo-jole irundarraren eta Maria Felipa Egaña Lizasoren bederatzigarren alaba gazteena zen. Gurasoak Igel-don ezkondu ziren 1786ko azaroan.
3. Bere aurretik, bost senide jaio ziren Erreterian, eta azken lauak, Oiartzunen.
4. Kontxak 9 urte zituela, 1815ean, familia Tolosara joan zen bizitzera, aitaren lana zela medio.
5. Zortzi urte pasa zituen Tolosan eta 1823an, 17 urte zituela, Galiziara joan zen familiarekin. Aita Partido Liberal Fuerista del Conde de Villafuertesko kide zen. Espainiako errege Fernando VII.ak absolutismoa berrezarri zuenean, Euskal Herriko liberalek Galizia aldera jo zuten.
6. 1826an, familia berriz ere Euskal Herrira itzuli zen, baina Kontxak, 20 urterekin, Galizian gelditzea erabaki zuen.
7. Han, 1833an, Jose Martinez botikariarekin ezkondu zen, haurdun zegoela, eta honekin bi seme izan zituen.
8. Bere seme zaharrena, Manuel Antonio, Manuel Martinez aski ezaguna da, batez ere Galizian, Rosalia De Castro poetaren senarra izan baitzen eta Galizia-ko abertzaletasunaren aitzindaria ere bai.
9. Manuel Martinezek zioenez, «amari zor zion aberriarekiko, Galiziarekiko, maitasuna». «Amak bere aberri urruna nola maitatzen zuen ikusita» ikasi omen zen berak «Galizia maitatzen».
10. Kontxaren semea, Martinez izan zen Real Academia Gallegako lehenengo lehendakaria.

Urtero, omenaldia

Galiziako abertzaletasunaren aitzindariaren amari, horregatik, omenaldia egiten diote urtero-urtero, Euskal Herrian bizi diren galiziarrek. 2000. urtean hasi ziren Oiartzunen, Xabier Iragorri alkate zela. Orduetik, omenaldiak ez du etenik izan.

Trintxerpeko Daniel Castelao Fato Galegoko kideak, Hernaniko Novas Fontes taldeko gaita-joleak eta Oiartzungo Udalak otsailean egin ohi diote omenaldia Kontxa Murguari, Pasaiaiko Udalaren laguntzarekin. Aurten otsailaren 13an izan zen egun hori.

Doneztebe plazatik Manuel Lekuona biblioteca arteko bidea ikurrina eta Galiziako bandera lagun zituztela egin zuten Xose Estevez idazle eta Daniel Castelaoko lehendakariak, Idurre Bera Udaleko Kultura zinegotziak eta beste hainbat lagunek.

«Bi herriren arteko senidetasuna»

Behin kultur etxera iritsita, sarreran Kontxa Murgiarene jaiotetxea zela gogora ekartzen duen oroigarriaren aurrean, lore eskaintza egin zuten. Euskaraz eta galizieraz idatzita dago oroigarria.



ROSALIA DE CASTRO



MANUEL MARTINEZ MURGUIA

*En sus ojos rasgados y azules,
donde brilla el candor de los ángeles,
ver creía la sombra siniestra
de todos los males.*

*En sus anchas y negras pupilas,
donde luz y tinieblas combaten,
ver creía el sereno y hermoso
resplandor de la dicha inefable.*

*Del amor espejismos traidores,
risueños, fugaces...
cuando vuestro fulgor sobrehumano
se disipa... ¡qué densas, qué grandes
son las sombras que envuelven las almas
a quienes con vuestros reflejos cegasteis!*


ROSALÍA DE CASTRO

OLATUEKIN JOLASEAN

Zazpi urte nituenean hasi nintzen surf egiten nire osabarekin Zumaiaiko Itzurungo hondartzan. Hasieran, udan bakarrik praktikatzen nuen baina berehala neguan ere uretara sartzera animatu nintzen. Udako egun batean, nire aitarekin uretan nenbi-lela, mutil gazte bat nire aitagana zuzendu eta berarekin hitz egin ondoren, nire entrenatzaile bihurtu zen.

2005. urtean nire lehen txapelketa irabazi nuen Zarauzko hondartzan, 2007an Oxbow Kid Week-eko maniobra onenaren saria jaso nuen, 2008an Donostiako Ikastxiki txapelketa irabazi nuen eta 2009an Gipuzkoako txapelduna izan nintzen eta 16 urte azpiko Euskadiko zirkuitua irabazi nuen.


Lehengo urtean Europako junior zirkuitua egiteko aukera izan nuen Gipuzkoako junior selekzioari esker. Junior zirkuitua European jokatzeko den 21 urte azpiko zirkuitua da eta bertan Europako surflari onenek parte hartzen dute. Oso esperientzia polita izan zen eta



Ekan Egiguren
DBH 4. maila

asko ikasi nuen. Aurten ere beraiekin joateko aukera dut eta gogo izugarria daukat zirkutua hasteko eta berriz ere onenen aurka lehitzeko.

Surfari esker asko bidaiatu dut, Portugalera maiz joaten gara, bertan ospatzen baitira Europako txapelketa gehienak. Orain dela gutxi Australian egon naiz, sekulakoa izan da, txikitatik izan dut hara joateko gogo. Munduko olatu famatuenetariko batean surfeatzeko aukera izan dut, eta baita munduko surflari onenarekin ere. Oraindik leku asko geratzen zaizkit bisitatzeko baina aurten gehien bat Europako txapelketak egiten arituko naiz.






Eneritz Toledo

Ikasle ohiarekin berriketan

Askok erabakitzen dute Haurtzaro ikastolatik irten ondoren, ikasketak Euskal Herritik kanpo jarraitzea. Horietako bat da Eneritz Toledo ikasle ohia, zuzenbide ikasketen 4. urtea egitera Argentinako Bahia Blanca herrira joan dena, eta berarekin hitz egin dugu. Zergatik Argentina?



Unibertsitatean hasi nintzenetik oso argi nuen Erasmus-eko beka eskatuko nuela. Nik Donostian ikasten dut eta, beraz, gurasoen etxean egon naizenez, urte hauetan guztietan etxetik kanpo bizitzeko esperientzia probatu nahi nuen. Hasiera batean Italiara joateko asmoa nuen, baina norakoa aukeratzeko unea iritsi zenean, Erasmus bezalako beste beka bat topatu nuen, UPV-EHU-AL izenekoa, Hegoamerikako unibertsitateena. Pentsatzen jarri nintzen eta benetan niri ez zidan atentziorik deitzen Europak, nire ametsa betidanik Hegoamerika eta batez ere Argentina ezagutzea izan da. Lurraldea bera erakargarria iruditzen zitzai-





dan: jendea, paisaiak, klima... Horrelako aukera ezin nezakeen galdu!

Zein desberdintasun nabaritzen dituzu Argentinaren eta Euskal Herriaren artean?

Alde batetik, jendearen izaieran. Hemengo jendea oso ezberdina da. Oso alaiak eta maitekorak dira. Ezagutzen zaituztenetik oso irekiak dira eta bromazaleak. Maitekorak direla diodanean, batez ere, hemengo agurtzeko eraz ari naiz. Argentinan lagunaren artean agurtzeko musu bat ematen dute. Berdin du lagun bat edo hogei lagun izan, denei ematen diote; bai hasieran baita amaieran ere. Klaseetan, adibidez, irakaslea hitz egiten badago eta lagunaren bat sartzen bada gelara, lagun guztiei ematen die musu bana. Egia esan, azkenean nazkatu egiten zara (ni behintzat bai), kar, kar.

Bestalde, hemengo matearen ohiturak harritu ninduen. Hemen, arratsaldetan lagunak ez dira tabernetan edo lokaletan elkartzen, jendearen etxeetan matea hartzera joaten dira. Matea hartzak ez du soilik infusioa edatea esan nahi; bere esanahia haratago doa: konfiantza, laguntasuna, lasaitasuna, konpainia... Hainbat esanahi izan ditzake.

Zein zailtasunekin egin duzu topo?

Hasieran asko kostatu zitzaidan hemengo errutinararen ohitzea. Euskal Herrian ohituta nongoen ordulariaren menpe bizitzera eta egun guztia okupatuta edukitzera: ikasketak, lana, lagunak... Ordutegi bat nuen, derrigorrez jarraitu behar nuena. Hemen, ordea, lasaitasuna da nagusi. Ordubete berandu ailegatzen zarela hitzordura? Ez da ezer pasatzen, Argentina da! Baina uste dut dagoeneko gehiegi ohitzen ari naizela bizitza era honetara.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Badakit tipikoa dirudiela, baina familia eta lagunak! Azkenean haiek gabe bizitzen ohitzen zara, baina zenbait egunetan ohitzea oso zaila da. Bestalde, Oiartzun bezalako herri txiki batek dakartzan alde onak ere gogoratzen ditut: kanean denak ezagunak izatea, beti aurkitzen duzu lagunaren bat. Bahia Blancak, ordea, 400.000 biztanle inguru ditu eta nahi edo ez, ezberdintasuna handia da.

Zer ekarriko zenuke Argentinatik Euskal Herrira? Eta alderantziz?

Euskal Herritik fundamentu eta antolakuntza pixka bat ekarriko nuke. Nik uste dut hau beren bizitzeko era lasaiaren ondorio dela. Argentinatik, ordea, lasaitasuna eta askatasuna. Lasaitasuna agian ez horren modu intentsuan; aipatu bezala, ondorioak ekar ditzakeelako, baina bai, lasaitasuna norberarentzako denbora har dezagun eta ez bizitzeko horrenbeste besteen menpe. Eta nola ez, dulce de lechezko alfajoreak! Nik uste alfajoreen negozioa Euskal Herrira ekartzen duena aberastu egingo litzakeela.

Gertatuko zitzaizun jada, istorio xebreraren bat...

Duela egun batzuk argentinarr batekin hitz egiten ari nintzen eta nongoa nintzen galdetu zidan. Nik Euskal Herrikoa nintzela erantzun ondoren, herria esateko eskatu zidan. Nik, orduan, pentsatu nuen "zertarako esango diot nire herriaren izena, ez baitu ezagutuko", baina halere, Oiartzunen bizi nintzela esan nion. Bere erantzunarekin harrituta geratu nintzen: bere amona oiartzuarra zen, pikabeatarra.

Euskaldunak, beraz, ez gara hain ezezagunak Argentina aldean, ezta?

Euskal Herriaren eta euskararen presentzia nabaria da Bahia Blancan. Batetik, euskal jatorria duen jende asko ezagutu dut, batzuek gainera oraindik familia bertan dute. Abizenak begiratzea besterik ez dago: Azkarate, Pikabea, Urrutia, Insausti, Irastorza, Errekalde, Irazusta...

Bestalde, euskal etxeak daude. Argentinan gutxi gorabehera hirurogei bat euskal etxe daude. Bahia Blancan ere bat badago. Euskal kulturarekin lotutako ekintza pila bat egiten dituzte: euskal dantza, pilota, txistu ikastaroa, euskara ikastaroak... Euskal dantzaren kasuan, adibidez, hogei bat gazte dabilta, euskal jatorria dutenak eta ez dutenak, eta benetan lotuta daude euskal kulturarekin. Hori izugarria da!

TI-TA BATEAN:

Usain bat: Mate belarra.

Kolore bat: Urdina.

Soinu bat: Bahia Blancako haizearena.

Filme bat: *El secreto de sus ojos*.

Abesti bat: *Agua* (Los Piojos).

Liburu bat: *El Tunel* (Ernesto Sábato).

Ezkutatzeko leku bat: Villa de la Ventana (Argentina).

Ezagutzeko leku bat: Iguazuko ur-jauziak.

Argentina: Egia bihurtutako ametsa.

Euskal Herria: Herrimina.

Hautzaro Ikastola: Iraganean ikasitako etorkizuna.

LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO

irakasleei elkarriketa

1. Zeintzuk osatzen duzue ziklo hau?

Izko Lekuona, Miren Arruabarrena, Asier Irastorza, Ixiar Burugain, Malu Irastorza, Xabi Salaberria, Lide Martiarena eta Itxaso Goikoetxeak.

2. Ziklo hau Lehen Hezkuntza etaparen erdian kokatuta dago, beraz, ikaslearen garapenean ziklo honen garrantzia zertan datza?

LHko etapak DBHrako bidea egingo badu, gure zikloak lehenengo ziklotik jasotako instrumentuak sendotzea du helburu. Sendotzeaz gain, adierazpenaren eremuan ere murgiltzen gara, eta adierazpen hori gauzatzeko, ezinbestekoa da ikasleen autonomia garatzen jarraitzea.

3. Bigarren ziklo honetan ikasleek Txanela proiektuan murgiltzen jarraitzen dute. Aurretik arituak dira. Jarraipena izanik, zein aldaketa azpimarratuko zenituzkete proiektu honetan?

Aurreko galderan aipatu bezala, ziklo honetako aldaketa nabarmenena idatzizko adierazpenean datza. Ikasleek testu mota desberdinak ekoizten dituzte, bakoitzaren egitura eta ezaugarriak kontuan edukiz, eta indar berezia hartzen dute kontzeptu mapek, azalpen testuek, ideia nagusien bereizketek, laburpenek, grafikoaren interpretazioek, ziklogramek...

4. Ziklo honetako ikasleak zer lan ohitura bereganatzen ditu? Nola?

Alde batetik, bakarkako lanean autonomiaz jokatzeko trebatu behar dute, eta bestetik, talde lanean aportatzen, konpartitzen eta ideiak bateratzen ikasi behar dute; beti ere, bakarka nahiz taldeka, egoera baten aurrean topatzen dituzten arazoen aurrean estrategiak garatuz.

Norberak bere hausnarketa egin dezakeela eta egin behar duela jabetzea, aukera okerraren beldurra gainditzea eta okerrak positiboki bizi izan eta ikasketak bezala hartzea dira ziklo honetako erronka nagusiak.

5. Txanela proiektuak ekintza ugari ere proposatzen ditu. Munduko hainbat tokitara bidaiatzen duzuela badakigu. Aipa itzazue ikasleen gustukoak.

Txanela proiektuak oso ondo aukeratzen ditu gaiak. Egiptora, Ameriketara... bidaiatzeaz gain, mundu eta eremu desberdinetan murgiltzeko aukera izugarria ematen du, hala nola historiaren mundua, filosofia-ren mundua, zientziaren mundua, artea, teknologia, autoestima, kritikotasuna...

6. Egun, Ikasys proiektuan ere bete-betean ari zarete. Nola dabilta ikasleak? Eta irakasleak?

Ziklo bezala hasi berriak gara proiektu honetan, baina esan dezakeguna da ilusio handiz hasi garela, bai ikasleak eta baita irakasleak ere.

7. Zuen zikloan Haurtzaro ikastolako lau ikasle ohi zaudete irakasle modura eta 2 irakasle historiko. Zer duzue horren inguruan esateko?

Historikoak direnak, nahiz eta hasieratik hona aldaketa ugari bizi izan, gazte sentitzen eta mantentzen dira oraindik, dinamika bizi-bizian lanean. Eta ikasle ohiak direnen artean ere, bi egoera desberdin bizi izan dira ikastola honetan. Ikasle historikoak, batetik bestera ibili ondoren ikastola honekin topatu eta bertan leku bat izateaz harro eta pozik daudenak, eta gazteagoak, bertako ikasketak bukatu orduko berriz itzuli izanaz harro eta pozik daudenak. Esan beharra dugu 20 urtez gure artean egon ondoren, kanpotik etorritakoa ere bertako sentitzen dela dagoeneko.



Ezkerretik hasita: Itsaso Goikoetxea-Malu Irastorza-Lide Martiarena- Ixiar Burugain-Xabi Salaberria-Izko Lekuona-Miren Arruabarrena
Makurtuta: Asier Irastorza



BOST DESBERDINTASUN DAUDE BI MARRAZKI HAUEN ARTEAN

LABIRINTOA





LOGIKA-JOKOA

Zaharren egoitzan elkarren ezagutza egin dute gure hiru lagunek. Kontu-kontari pasa dute arratsaldea eta ondoko egunean berriz elkartzekotan gelditu dira. Ondoko datuak egokiro erabiliz gero, aise asmatuko duzu nor zer izan den eta zer adina duen bakoitzak.

1. Anitua zurgina zen, baina ez du Patrizio izena eta ez ditu 74 urte.
2. Patrizio argiketaria zen; bestalde, Xebera ez zen iturgina.
3. Galarreta deitura duena Goldaraz baino bi urte gazteagoa da.
4. Luzio Xebera baino bi urte zaharragoa da.

B (bai) letra datu zuzenak gurutzatzen diren laukitxoan ezarria dago; oro-bat,
E (Ez) letraren bidez ageri diren ezintadunak adierazten dira. Datuak irakurri eta hutsuneak zeinu horiekin
(B, E) bete. Ondorio zuzenak lortu ahala, soluzio-taulara pasa ditzakegu.

		ABIZENA			LANBIDEA			ADINA		
		Anitua	Galarreta	Goldaraz	Argiketaria	Iturgina	Zurgina	72 urte	74 urte	76 urte
IZENA	Luzio									
	Patrizio	E					E			
	Xebera									
ADINA	72 urte									
	74 urte	E								
	76 urte									
LANBIDEA	Argiketaria	E								
	Iturgina	E								
	Zurgina	E	E	E						

IZENA	ABIZENA	LANBIDEA	ADINA



OIARTZOKO IKASLE OHIEN DIPLOMA BANAKETA (2009-XII-19)

Zorionak batxiller berriei! Desiorik onenak zuentzat Haurtzaro ikastolaren izenean



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabiloia - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@alocom.net

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065

Polígono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



KIRLOKORTAKO KIDEGAKETA
GOSTOIA NAGARRA, POLI-PORTUAK



ELORSORD KIDEGAKETA · Edifizioa 24
T. 943 492 552 · M. 629 751 352
F. 943 490 591 · gorka@elorsord.com
20180 OIARTZUN (Gorria)